



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko maiatzaren 16a

65. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Azkoien Udalaren 2016ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Azkoingo Udalaren 2016ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko apirilaren 9an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Azkoingo Udalaren 2016ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko apirilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Azkoingo Udalaren 2016ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (3. or.).

II. Iritzia (5. or.).

II.1. Auditoria finantzarioko iritzia (6. or.).

II.2. Legezketasunaren betetzeari buruzko iritzia (6. or.).

III. Udalaren 2016ko kontu orokorraren laburpena (7. or.).

III.1. 2016ko aurrekontu bateratuaren betearazpenaren egoera-orria (7. or.).

III.2. 2016ko aurrekontu-emaizta bateratua (7. or.).

III.3. Diruzaintzako gerakin bateratuaren egoera-orria 2016ko abenduaren 31n (8. or.).

III.4. Udalaren egoerari buruzko balantzea 2016ko abenduaren 31n (8. or.).

III.5. Udalaren emaitza ekonomikoa 2016ko abenduaren 31n (9. or.).

IV. Iruzkina, oharra eta gomendioak (10. or.).

IV.1. Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2016ko abenduaren 31n (10. or.).

IV.2. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea (12. or.).

IV.3. Alderdi orokorrak (13. or.).

IV.4. Langile-gastuak (15. or.).

IV.5. Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuak (16. or.).

IV.6. Transferentzia arruntengatiko gastuak (18. or.).

IV.7. Inbertsioak (18. or.).

IV.8. Aurrekontuko diru-sarrerak (19. or.).

IV.9. Itxitako ekitaldietako aurrekontuak (23. or.).

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2017rako jarduketa-programari jarraituz, Azkoiengo Udalaren 2016ko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu du. Honako hauek osatuta daude kontu horiek, funtsean: data horretan amaitutako ekitaldiko aurrekontuko likidazioaren egoera-orriak, aurrekontu-emaiza, diruzaintzako gerakina, balantzea eta emaitza ekonomiko eta ondarezkoen kontua.

Urteko kontuen finantza-auditoriarekin batera, legezketasuna betetzeari buruzko fiskalizazioaren plangintza egin eta bete dugu, honako honi buruzko iritzi bat eman ahal izateko: ea Udalak ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2016ko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako informazioa bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Azkoiengo Udalarari 2016ko ekitaldian aplikatzekoa zaion arau-esparrua, funtsean, honako hauek osatuta dago: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea eta Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoa, bai eta sektorekako araudi indarduna ere. Halaber, nabarmendu behar dugu 2016ko aurrekontua aurkezten dela Nafarroako Gobernuak irailaren 23ko 234/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsi zuen toki entitateen aurrekontu-egitura berriari jarraituz.

Azkoiengo udalerrak 88,40 km²-ko azalera du, eta 2016ko urtarrilaren 1ean 5.837 biztanle dauzka.

Udalak erakunde autonomo bat dauka musika eskola kudeatzeko.

Honako hauek izan ziren Udalaren eta haren erakunde autonomoaren datu ekonomiko eta langileei buruzko datu nagusiak 2016ko ekitaldiaren itxieran:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak, 2016-12-31n
Udala	4.537.337	5.229.846	26,50
Udalaren Musika Eskola	258.811	267.518	14,00
Bateratzearen doitzeak	(140.550)	(140.550)	
Guztira	4.655.597	5.356.814	40,50

2016an, Udalak 140.550 euroko ekarpena egin dio, guztira, bere erakunde autonomoari.

Udalak ondoko mankomunitateetan hartzen du parte:

- Goi Erriberako Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatea, hiri-hondakin solidoen kudeaketarako eta tratamendurako.
- Azkoiengo, Faltzes, Martzilla eta Funesko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, oinarrizko gizarte zerbitzuak emateko. Mankomunitate horri Udalak, guztira, 120.065 euroko ekarpena egin dio 2016an.

Ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taula honetan ageri dira.

Zerbitzua	Udala	Erakunde autonomoak	Mankomunitatea	Emakida	Zerbitzu-kontratua
Administrazio-zerbitzu orokorrak	X				
Udaltzaingoa	X				
Musika eskola		X			
Hirigintza	X				
Ur-hornidura			X		
Hiri hondakinak			X		
Kale garbiketa					X
Udal hilerria					X
Ikastetxeen mantentze-lanak	X				
Ludoteka					X
Kontsumitzaileei informazioa emateko zerbitzua					X
Gizarte zerbitzuak			X		
Etxez etxeko laguntza			X		
Kultur etxea	X				
Enplegu sozial babestua			X		
Gaztediaren etxea					X
Errolda	X				
Herritarren parte-hartzea	X				
Diru-bilketa	X				X
Diru-bilketa exekutiboa					X
Ereta kirol-eremua				X	
Argiteria publikoa	X				
Estolderia	X				
Populazio-guneetarako sarbidea	X				
Bide publikoen zoladura	X				
Parke publikoa.	X				
Salmenta ibiltaria	X				

Udalaren 2016rako aurrekontu orokorra Udalaren Osoko Bilkurak onetsi zuen 2015eko abenduaren 18an.

Txostenak lau atal dauzka, sarrera hau barne; bigarrenean, Udalaren kontu orokorrari buruz daukagun iritzia ematen dugu. Hirugarrenean, Udalaren finantzen egoera-orri nagusien laburpen bat ematen dugu. Eta laugarrenean, zenbait ohar eta ondorio jaso ditugu (honako gai hauei buruzkoak: egoera ekonomiko eta finantzarioa, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea, musika eskola eta kudeaketaren beste alderdi garrantzitsu batzuk), bai eta Udalaren antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzen jotzen ditugun gomendioak ere.

Landa-lana 2017ko azken hiruhilekoan egin zuen enpresa kontratatu batek, Kontuen Ganberaren Ikuskatzea pean eta bertako auditore baten gainbegiratzearen eta zuzendaritzaren pean. Era berean, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridikoen, informatikoen eta administratiboen laguntza izan dugu.

Jarduketa honen emaitzak Azkoiengo Udaleko alkateari jakinarazi zitzaizkion, kasua bazen egokitzen jotzen zituen alegazioak aurkez zitzan, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz. Epea iraganda, behin-behineko txostenari ez zaio alegaziorik aurkeztu.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak eman nahi dizkiegu Azkoiengo Udaleko eta musika eskolako langileei.

II. IRITZIA

Azkoiengo Udalaren 2016ko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu dugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honetako III. atalean.

Udalaren erantzukizuna

Udalaren kontu-hartzailletza da kontu orokorra egin eta aurkezteko ardua duena. Halako moduz egin behar du non kontu horrek leialki irudikatuko baititu Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden kontu orokorrak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzepzioa, ezarpena eta mantentzea.

2016ko kontu orokorra 2017ko urriaren 25ean onetsi zuen Udalaren Osoko Bilkurak.

Udalak, urteko kontuak egiteko eta aurkezteko erantzukizunaz gainera, bermatu beharko du urteko kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontrolen sistemak ezarri beharko ditu.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea 2016ko kontu orokorraren fidagarritasunari buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz.

Horretarako, erantzukizun hori bete dugu kanpo kontrolen erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarritzko printzipioen arabera. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta betearaztea egin ditzagula ere, honako helburu honekin: kontu orokorretan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio honek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko zenbatekoei eta kontu orokorretan adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezkotasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –entitateak kontu orokorrak egin ditzan garrantzitsua baita– inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasunaren eta arduradunek egingako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasunaren ebaluazioa, bai eta kontu orokorren aurkezpenaren ebaluazioa ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia biltzen du finantzen eta betetzearen gainean egin dugun fiskalizaziorari buruzko iritzia funtsa izateko.

II.1. AUDITORIA FINANTZARIOKO IRITZIA

Iritziaren oinarria, salbuespenekin

Udalaren eta haren erakunde autonomoaren ondasunen inbentarioa 1995ekoa da; 2017ko ekitaldian, berriz, hura gaurkotzeko lanak egin dira. Horrenbestez, ezin izan dugu egiaztatu egoera-balantzeko ibilgetuaren kontabilitate-saldo metatuaren arrazoizkotasuna; saldo hori 36,99 milioi-koa da 2016ko abenduaren 31n.

Iritzia

Gure iritzian, "Iritziaren oinarria, salbuespen batzuekin" atalean azaldutako norainokoaren mugarengatik ez bada, Udalaren erantsitako kontu orokorrak irudi leiala erakusten du alderdi esanguratsu guztietan, ondareari, gastuen eta diru-sarrearen aurrekontuaren likidazioari eta Udalaren 2016ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

II.2. LEGEZKOTASUNAREN BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Iritziaren oinarria, salbuespenekin

Kontratazio administratiboa aztertzerakoan, ikusi dugu kasuko kontratazio-espeditentea dela-eta izapidetu gabeko gastu batzuk badaudela, bai eta jada muga-egunera iritsitako kontratu batzuetako gastuak ere. Ez-betetze horiek direla-eta Udaleko kontu-hartzaileak eragozpenak aurkeztu izan ditu.

Iritzia

Gure iritiz, "Iritziaren oinarria, salbuespen batzuekin" paragrafoan azaldutako ez-betetzeen eraginarengatik ez bada, Udalaren 2016ko ekitaldiko jarduerak, finantza-eragiketak eta sozietatearen egoera-orri finantzarioetan azaldutako informazioa bat datoz, garrantzizko alderdi guztietan, aplikatzekoak diren arauekin.

III. UDALAREN 2016ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren azaltzen dira 2016ko kontabilitatearen egoera-orri garrantzitsuenak. Zehaztu beharra dago kontu orokorrak ez duela jasotzen Udalaren eta haren erakunde autonomoaren balantzearen eta emaitzen kontuaren bateratzerik; hori dela eta, atal honetan erakusten diren egoera-orriak Udalari buruzkoak dira soil-soilik.

III.1. 2016ko AURREKONTU BATERATUAREN BETEARAZPENAREN EGOERA-ORRIA

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Kap.	Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako bete-behar garbiak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Ordaintzeko dagoena
1	Langile-gastuak	2.125.000	-20.100	2.104.900	1.905.139	91	1.873.862	31.277
2	Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	1.989.550	20.521	2.010.071	1.830.921	91	1.714.012	116.909
3	Finantza-gastuak	47.200		47.200	27.795	59	25.357	2.438
4	Transferentzia arruntak	473.800	16.279	490.079	318.441	65	296.974	21.467
6	Inbertsio errealak	1.209.926	10.000	1.219.926	207.442	17	180.115	27.327
7	Kapital-transferentziak	37.000	6.300	43.300	41.498	96	29.498	12.000
8	Finantza-aktiboak							
9	Finantza-pasiboak	157.600	170.000	327.600	324.361	99	284.361	40.000
	Guztira	6.040.076	203.000	6.243.076	4.655.598	75	4.404.179	251.418

Diru-sarrerak, kapitulu ekonomikoen arabera

Kapitulua	Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldaketa	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako esku-bide garbiak	Betetakoa (%)	Kobrantzak	Kobratzeko dagoena
1	Zuzeneko zergak	1.559.500		1.559.500	1.654.036	106	1.555.174	98.862
2	Zeharkako zergak	120.000		120.000	204.645	171	190.058	14.587
3	Tasak, prezio eta beste diru-sarrerak batzuk	557.500		557.500	557.504	100	502.546	54.958
4	Transferentzia arruntak	2.192.300	9.000	2.201.300	2.166.813	98	2.122.228	44.585
5	Ondare bidezko diru-sarrerak	738.400		738.400	755.840	102	646.727	109.113
6	Inbertsio errealak beste-erentzea	100.000		100.000	0	0		
7	Kapital-transferentziak	775.376	3.500	778.876	17.976	2	0	17.976
8	Finantza-aktiboak		190.500	190.500	0	0		
9	Finantza-pasiboak							
	Guztira	6.043.076	203.000	6.246.076	5.356.814	86	5.016.733	340.081

III.2. 2016ko AURREKONTU-EMAITZA BATERATUA

Izena	2015	2016
+ Aitorturiko eskubide garbiak	5.679.071	5.356.814
- Aitorturiko bete-behar garbiak	5.704.944	4.655.598
= Aurrekontu-emaitza	-25.873	701.216
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboa		
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboa		
+ Diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	539.398	180.141
= Aurrekontu-emaitza doitu	513.525	881.357

III.3. DIRUZAINZAKO GERAKIN BATERATUAREN EGOERA-ORRIA 2016ko ABENDUAREN 31n

Izena	2015	2016
+ Kobratzeko dauden eskubideak	299.263	437.858
+ Diru-sarreraren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	306.167	340.081
+ Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	564.796	597.057
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak:	10.287	65.975
+ Gastuen itzulketak	1.631	308
- Bilketa zaileko eskubideak	-534.452	-555.175
- Aplikatzeko dauden kobrantzak	-49.176	-10.388
- Ordaintzeke dauden betebeharrak	986.263	464.551
- Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	780.672	251.418
- Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	46.733	40.736
- Aurrekontuz kanpoko gastuak	159.344	172.987
- Diru-sarreraren itzulketak	0	0
+ Aplikatzeko dauden gastuak	0	590
+ Diruzaintzako funts likidoak	1.726.247	1.784.102
+ Finantza-zerbitzuen desbideratze metatu negatiboak	0	0
Diruzaintza-gerakina, guztira	1.039.247	1.757.409
Diruzaintza-gerakina, finantza-zerbitzuen atxikia duten gastuak direla-eta	0	
Baliabide atxikiaren diruzaintza-gerakina	0	53.845
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	985.401	1.703.564

III.4. UDALAREN EGOERARI BURUZKO BALANTZEA 2016ko ABENDUAREN 31n

Aktiboa	2015	2016
Ibilgetua	36.707.574	36.912.759
Ibilgetu materiala	31.726.044	31.857.214
Ibilgetu ez-materiala	32.343	64.046
Erabilera orokorreko azpiegitura eta ondasunetako inbertsioak	282.274	311.116
Herri-ondasunak	4.666.913	4.680.383
Zirkulatuak	2.556.084	2.684.560
Zordunak	907.074	978.329
Finantza-kontuak	1.649.010	1.706.231
Aktiboa, guztira	39.263.658	39.597.319

Pasiboa eta garbia	2015	2016
Funts berekiak	35.786.368	36.997.163
Ondarea eta erreserbak	18.421.171	19.337.527
Ekitaldiaren emaitzak (etekina)	916.355	1.192.819
Kapitaleko diru-laguntzak	16.448.842	16.466.817
Epe luzeko hartzekodunak	2.441.783	2.117.422
Jasotako maileguak	2.441.783	2.117.422
Epe laburreko hartzekodunak	1.035.507	482.734
Hartzekodunak	986.468	472.483
Aplikatzeko dauden partidak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	49.039	10.251
Pasiboa eta garbia, guztira	39.263.658	39.597.319

III.5. UDALAREN EMAITZA EKONOMIKOA 2016ko ABENDUAREN 31n

Ekitaldiko emaitza arruntak

2015			2016					
Deskribapena			Deskribapena					
3	Izakinak	0	0	3	Hasierako izakinak	0	0	
61	Langile-gastuak	1.727.799	1.684.283	70	Salmentak	155.062	333.562	
62	Finantza-gastuak	40.767	27.795	71	Ondasunaren eta enpresaren errenta	1.164.120	821.662	
63	Tributuak	9.228	390	72	Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	1.258.492	1.442.477	
64	Lanak, zuzkidurak eta kanpoko zerbitzuak	1.826.097	1.794.834	73	Errentaren gaineko zerga arruntak	338.387	341.941	
67	Transferentzia arruntak	434.631	458.991	75	Ustiapenerako diru-laguntzak	0	6.779	
68	Kapital-transferentziak	29.616	41.498	76	Transferentzia arruntak	1.912.299	2.120.688	
800	Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	920.754	1.204.079	77	Kapitalaren gaineko zergak	44.863	74.262	
				78	Bestelako diru-sarrerak	115.667	70.498	
Guztira			4.988.891	5.211.870	4.988.891			5.211.870

Ekitaldiko emaitzak

Zor		2015	2016
80	Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	0
82	Ekitaldiko aparteko emaitzak (saldo zorduna)	0	0
83	Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)	0	0
84	Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	4.399	11.260
89	Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	916.355	1.192.819
Guztira		920.754	1.204.079

Hartzeko		2015	2016
80	Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzekoduna)	920.754	1.204.079
82	Ekitaldiko aparteko emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
83	Balore-zorroaren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
84	Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	0	0
89	Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	0	0
Guztira		920.754	1.204.079

IV. IRUZKINAK, OHARRAK ETA GOMENDIOAK

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, bai eta Ganbera honen ustez txostenaren hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitekeen informazio gehigarri bat ere. Halaber, jasotzen ditu Ganbera honen ustez Udalaren kudeaketa hobetzeko beharrezkoak diren gomendioak.

Halaber, fiskalizazio-txostenaren gaineko iritziaren salbuespenei buruzko informazio xehea gehitu da.

IV.1 UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 2016ko ABENDUAREN 31n

Udalaren hasierako aurrekontu bateratuak 6,04 gastu eta diru-sarrerak dauzka; zenbateko hori 203.000 euro handitu da aurrekontu-aldaketen bitartez. Horrenbestez, behin betiko aurreikuspenak 6,24 milioikoak dira. Aldaketa horiek eragina dute, funtsean, gastuen finantza-pasiboen kapituluan eta diru-sarriren finantza-aktiboetan.

Aitortutako betebeharrak 4,65 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 75eko betearazte-maila izan dute. Aitortutako eskubideek 5,36 milioi euro egiten dute, eta betearazte-maila ehuneko 86 da.

Funtzionamendu-gastuek gastu guztien ehuneko 87 egiten dute, eta finantza-zamak, eta kapitaleko gastuek, berriz, ehuneko zortzi eta bost, hurrenez hurren. Gastuei dagokienez, tributu bidezko diru-sarrerak ehuneko 45 dira eta transferentziak, berriz, ehuneko 41.

Laburbilduz, Udalak eta musika eskolak 2016an eta 2015ean gastatutako 100 euro bakoitza honako hauetara bideratu ziren eta honela finantzatu ziren:

Gastuaren izaera	2015	2016	Finantza-bidea	2015	2016
Langileak	34	41	Tributu bidezko diru-sarrerak	39	45
Bestelako gastu arruntak	38	46	Transferentziak	45	41
Inbertsioak eta kapital-transferentziak	21	5	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	16	14
Finantza-zama	7	8	Zorduntzea	0	0
	100	100		100	100

Aurrekontu bateratuaren 2016rako betearazpenak eta 2015ekoarekiko alderaketak honako ratio eta magnitude hauek eman zituzten, besteak beste:

Adierazleak eta magnitudeak	2015 ⁽¹⁾	2016	2016/15 aldea (%)
Aitortutako betebeharrak	5.704.944	4.655.598	-18
Likidatutako eskubideak	5.679.071	5.356.814	-6
Gastuen betetzea (%)	80	75	
Diru-sarreraren betetzea (%)	80	86	
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	4.144.309	4.082.296	-1
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	4.103.542	4.054.501	-1
Kapital-gastuak (6. eta 7. kapituluak)	1.196.153	248.940	-79
Finantza-eragiketengatiko gastuak (8. eta 9. kapituluak)	364.481	324.361	-11
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	5.121.526	5.338.838	4
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3ra)	2.233.509	2.416.185	8
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	557.545	17.976	-97
Kapitaleko eragiketengatiko diru-sarrerak (8. eta 9. kapituluak)	0	0	-
Biztanle bakoitzeko gastu arrunta	707	699	-1
Biztanle bakoitzeko kapital-gastua	204	43	-79
Biztanle bakoitzeko tributu bidezko diru-sarrera	381	414	9
Diru-laguntzen mendekotasuna (%)	45	41	
Tributu bidezko diru-sarrerak gastu arrunten gainean (%)	54	59	
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	338.609	1.025.577	203
Aurrekontu-emaizta doitua	513.525	881.357	72
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	985.401	1.703.563	73
Aurrezki gordina	1.017.984	1.284.337	26
Finantza-zama (3. eta 9. kapituluak)	405.248	352.156	-13
Aurrezki garbia	612.736	932.181	52
Finantza-zamaren adierazlea ⁽²⁾	8	7	
Aurrezki gordina/diru-sarrera arruntak (%) ⁽²⁾	20	24	
Zorpetze-ahalmena (%)	12	17	
Zor bizia	2.441.783	2.117.422	-13
Zorpetze-maila ⁽²⁾	48	40	
Zor bizia biztanleko	416	363	-13

⁽¹⁾ Auditatu gabeko ekitaldia

⁽²⁾ Ratioen izendapen berriak, Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiak sartutakoak

2016an, Udalak aurreko ekitaldian baino ehuneko 18 gutxiago gastatu du, eta aurreko ekitaldian baino ehuneko sei gutxiagoko diru-sarrerak izan ditu.

Gastu arruntek ehuneko bat egin dute behera; kapitaleko gastuek, aldiz, jaitsiera hori ehuneko 79koa izan da.

Diru-sarretan, tributuen bidezkoek ehuneko zortzi egin dute gora; kapitaleko diru-sarrerak, berriz, ehuneko 97 jaitsi dira.

2016an, diru-sarrera arruntak gastu arruntak baino 1,26 milioi gehiago dira. Halaber, nabarmentzekoa da diru-sarrera horiek ekitaldi gastuen guztizkoa finantzatzen dutela.

Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa 1,03 milioi eurokoa da eta ehuneko 203 egin du gora 2015eko ekitaldikoarekiko; aurrekontu-emaizta doitua 0,88 milioikoa da, ehuneko 72 handiagoa aurreko ekitaldikoa baino.

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinak ere nabarmen egin du gora: 0,98 milioitik 1,7 milioira.

2016ko aurrezki gordina, 1,28 milioikoa, ehuneko 26 handitu da; finantza-zama, berriz, ehuneko 13 gutxitu da. Aurrezki garbia 0,61 milioitik 0,93 milioira pasatu da.

Finantza-zamaren adierazlea ehuneko zazpikoa da 2016an (2015ean, berriz, ehuneko zortzi izan zen), eta aurrezki gordinak diru-sarrerara arrunten ehuneko 24 egiten du (ehuneko 20 izan zen 2015ean).

Zor bizia ehuneko 13 jaitsi da, eta 2016an 2,12 milioikoa izatera iritsi da; halaber, zorpetze mailak behera egin du, ehuneko 48tik ehuneko 40ra. Biztanle bakoitzeko zorra 363 eurokoa da 2016an (416 euro 2015ean).

Horrenbestez, eta amaierako laburpen gisa, 2016ko abenduaren 31n Azkoiengo Udalak finantza-egoera bateratu kaudimenduna du, 0,93 milioiko aurrezki garbiarekin; gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina, berriz, 1,70 milioikoa da, eta zor biziaren jaitsiera 0,32 milioikoa.

IV.2. AURREKONTU-EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA.

Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoari jarraituz, Udalak honako arau fiskal hauek bete behar ditu funtsean:

- Aurrekontu-egonkortasuna, edo ekitaldiko oreka/finantzaketa-gaitasuna, kontabilitate nazionalako terminoetan neurtua.
- Gastu-arauak –hau da, Udalaren 2016ko gastu konputagarriaren eta 2015eko gastuaren artean dagoen aldeak– ezin du gainditu BPGaren hazkundearen erreferentziako tasa. Tasa hori ehuneko 1,8an ezarri zen ekitaldi horretarako.
- Zor publikoaren iraunkortasunak esan nahi du Udalaren zorrak, kontabilitate nazionalako terminoetan, ezin duela gainditu diru-sarrerara arrunten ehuneko 110a.
- Merkataritza-zorraren iraunkortasunak esan nahi du hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeak ezin duela gainditu, orokorrean, 30 eguneko muga.

Egindako azterketatik honako hauek azpimarratuko ditugu:

Bateratzearen perimetroa, kontabilitate nazionalako eraginetarako, Udalak berak eta haren erakunde autonomoak osatzen dute.

Aurrekontu-egonkortasunaren araua

Udalak 2016an arau hori bete du, zeren eta gaitasuna lortu baitu 892.238 euro finantzatzeko, ondoren azaltzen den bezala:

Kontzeptua	2016
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	1.025.577
Zalantzazko diru-bilketarengatik doikuntza	-77.041
Administrazio publikoen diru-laguntza finalistengatik doikuntza	-56.298
Finantzaketa-ahalmena	892.238

Gastuaren araua

2016ko ekitaldiko gastu konputagarria 2015eko ekitaldikoa baino 457.521 euro txikiagoa da; horrenbestez, bete egiten da arau hori.

Kontzeptua	2015	2016
Oinarri-urtearen gastu konputagarria	4.204.537	3.872.697
BPGaren erreferentziako tasa	1,018	
Gastu konputagarria, erreferentziako tasarekin igota	4.280.218	
+ Diru-bilketako igoera iraunkorrak, arau-aldaketak tarteko ⁽¹⁾	50.000	
2016rako gehieneko gastu konputagarria	4.330.218	

(1) Parke eoliko bati buruz 2015ean onetsitako udalez gaindiko balorazio-ponentzia berri bati dagokio.

Finantza-iraunkortasunaren araua

2016ko abenduaren 31ko zor bizia 2,12 milioi da, eta zenbateko horrek 2016ko ekitaldiko diru-sarrerara arrunten ehuneko 40 egiten du; beraz, portzentajea arau indardunak ezartzen duen ehuneko 110eko mugatik behera dago.

Hornitzaileei ordaintzeko epea

Udalaren eta haren erakunde autonomoaren ordainketak direla eta, honako hau izan da adierazle horren batez besteko balioa 2016an:

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea	2016
Lehenengo hiruhilekoa	-7,93
Bigarren hiruhilekoa	-12,94
Hirugarren hiruhilekoa	-11,49
Laugarren hiruhilekoa	-16,95

Horrenbestez, Udalak bete egin du arau hori, zeren eta ordaintzeko epea txikiagoa baita araudi indardunak merkataritza-eragiketetarako ezarritakoa baino (30 egun naturaleko epea izaten da).

IV.3. ALDERDI OROKORRAK

- 2015eko abenduaren 18an, Udaleko Osoko Bilkurak 2016ko ekitaldirako aurrekontu orokorra onetsi zuen.

- Hasierako aurrekontuan hamabi aurrekontu-aldaketa egin ziren ekitaldian zehar: 203.000 euro egiten dute guztira. Aldaketen lagin bat aztertuta, ikusten da izapidetzeari eta edukiari begira aurrekontu-araudian ezarritakoaren arabekoak direla.

- 2016ko kontu orokorra 2017ko urriaren 25ean onetsi zen. Kontu orokor horrek ez ditu eransten Udalaren eta haren erakunde autonomoen balantze eta emaitzen kontu bateratuak.

- Udalak eta musika eskolak 1995ean egindako inbentario bat dute. 2017an, hainbat gaurko-tze lan egin dira hartan.

Udalak ez du Lurzoruaren Udal Ondarearen ez inbentariarik, ez eta ondasunen erregistrorik ere.

- Ekitaldiaren itxieran, Udalaren zor bizia 2,12 milioikoa da; hona hemen xehetasunak:

Entitatea	Zertarakoa	Emateko data	Mugaeguna	Zor Bizia 2016-12-31n
Riegos de Navarra	Soto Muga deitutako aldea birmoldatzea	1994/12/1	2019/12/1	46.897
Riegos de Navarra	Escopar baltsa	1993/12/1	2018/12/1	9.988
IV. Sektoreko Ureztatzaileen Erkidegoa	Cascajoko lurzatietako hibrantea	2010/10/4	2028/10/4	318.564
Nafarroako Rural Kutxa	Kultur etxea	2008/12/23	2033/12/30	680.000
BBVA	Zenbait lan	2008/12/24	2033/10/30	680.000
Nafarroako Rural Kutxa	Cascajo bazkalekua erostea	2009/6/18	2034/6/18	216.973
Caixabank	Ureztalur bihurtzea	2010/12/31	2027/12/31	165.000
				2.117.422

Ikusten denez, zor biziaren ehuneko 18 entitate publikoekikoa da, eta ehuneko 82, berriz, finantza-entitateekikoa. Riegos de Navarraren eta Ureztatzaileen Erkidegoaren saldoen konfirmazioz ez da jaso.

Musika Eskolak ez du zorpetzerik.

2016an, zorraren interesengatiko eta amortizazioarengatiko gastuak 27.795 eta 324.361 eurokoak izan dira hurrenez hurren.

- Diruzaintzaren arloan, honako hauek ikusten ditugu.

a) Finantza-entitateen batean pertsona baimenduen sinadura batzuk aurkitu dira gaur egun Udalarekin loturarik ez duten pertsonenak.

b) Ez da kutzako kontakatarik egiten.

- Udalaren hirigintza plana Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariaren azaroaren 7ko 390/2016 Foru Aginduaz onetsi zen, eta 2017ko martxoaren 15eko 52. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Udalak ez du ezarri hirigintza-hitzarmenei buruzko erregistrorik, ez eta artxibo administratiborik ere.

Gure gomendioak:

- *Kontu orokorra indarrean dagoen legeriak aipatzen dituen epeen barruan onartzea.*
- *Kontu orokorrean Udalaren eta haren erakunde autonomoen egoera finantzario bateratuak jasotzea.*
- *Udal inbentarioa gaurkotzeko prozesua amaitzea eta kontrolerako eta alden eta bajeen jarraipenerako sistema bat ezartzea, horren bidez haien gaurkotze iraunkorra eta kontabilitateko ibilgetuarekiko lotura errazteko.*
- *Lurzoruaren Udal Ondarearen erregistro eta inbentarioa egitea.*
- *Hirigintza-hitzarmenen erregistroa eta artxiboa ezartzea.*
- *Finantza-entitateetan baimendutako sinadurak gaurkotzea, eta baja ematea jada Udalarekin loturarik ez duten pertsonenak.*
- *Aldizka, eta bereziki ekitaldiaren amaieran, kontaketa-aktak egitea dokumentu formalizatu eta errubrikadun batean.*

IV.4. LANGILE-GASTUAK

Langileriaren gastu bateratua 1,91 milioikoa izan da 2016an; horrek ekitaldi horretako guztizko gastuaren ehuneko 41 egiten du.

Honako hauek izan dira aurreko ekitaldiarekiko bilakaera eta kontzeptuen araberako xehetasunak:

Langile-gastuak	2015	2016	Aldea (%)
Hautetsien lansariak	71.612	65.470	-9
Funtzionarioak	495.664	605.418	22
Lan-kontratupeko langileak eta beste langile batzuk	515.762	393.589	-24
Gastu sozialak	640.537	615.641	-4
Udala, guztira	1.723.575	1.680.118	-3
Lan-kontratudun langileak	159.013	167.238	5
Gastu sozialak	52.663	57.783	10
Musika eskola, guztira	211.676	225.021	6
1. kapitulu bateratua, guztira	1.935.251	1.905.139	-2

2016ko ekitalditik 2015eko ekitaldira izan den gastuak 30.113 euroko jaitsiera izan du; hau da, ehuneko bikoia.

Langile funtzionarioen gastuaren igoeraren arrazoia da gastuak kontzeptu mailan xehakatu direla, toki entitateen aurrekontu-egitura berriari jarraituz.

Udaleko langile-multzoaren enplegu-baldintzak funtsean araudi orokorrak ezarritakoak dira; halere, tokiko poliziarekiko berariazko akordio bat badago, eta obretako langileei eraikuntzaren arloko hitzarmena aplikatzen zaie.

Udalaren eta musika eskolaren plantilla organikoari 2016ko urtarrilaren 25ean eman zitzaion behin betiko onespena; honako osaera hau dauka:

Lanpostuak	Zenbat	Aktiboa	Lanpostu hutsak	Betetako lanpostu hutsak
A. Udala	28,5	21,5	7	6
Funtzionarioak	18	13	5	4
Lan-kontratudun finkoak	9,5	7,5	2	2
Izendapen askea	1	1	-	-
B. Musika Eskola	14	9	5	5
Lan-kontratudun finkoak	4	3	1	1
Aldi baterako lan kontratupekoa, lanaldi partzialarekin	10	6	4	4
Guztira	42,5	30,5	12	11

Hau da, 42,5 lanpostuko guztizko batetik, 12 hutsik daude, hau da, ehuneko 28; hutsik dauden lanpostu horietatik, 11 aldi baterako beteta daude.

2016ko abenduaren 31n, Udalean eta haren erakunde autonomoetan 40,5 langile ari dira lanean; hona hemen xehetasunak:

Langileak	Udala	Musika eskola	Guztira
Izendapen askea	1		1
Funtzionarioak	13		13
Lan-kontratudun finkoak	6,5		6,5
Administrazio-kontratudun langileak	4		4
Lan kontratupekoak, aldi baterako	2	6	8
Lan-kontratu mugagabea duten langile ez-finkoak		7	7
Aldizkako finkoak		1	1
Guztira	26,5	14	40,5

Nabarmendu behar dugu musika eskolan lanpostu guztiak aldi baterakoak direla; halere, zortzi langilek kontratu mugagabe ez-finkoa dute.

Udalak 2016rako lan publikoaren eskaintza bat onetsi zuen, eta tokiko poliziaerako lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia egin zuen. 2017an zehar garatu da prozesu hori.

Langileen lagin baten nominak egiaztatuta, ondorioztatu dugu ordainsariak eta atxikipenak bat datozela plantilla organikoan lanpostu horietarako ezarritakoekin, eta espediente pertsonaletan jasotako inguruabar administratibo eta pertsonalak, espediente pertsonalak jasotakoak, bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin.

Gure gomendioak:

- *Plantilla organikoan jasotzea lanpostu bakoitzaren laneko lotura egokia, bereziki musika eskolaren kasuan.*
- *Aldi baterako langileen egoera erregularizatzea, eta lanpostu hutsen deialdia egitea, egungo araudiaren testuinguruan.*

IV.5. ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN EGINDAKO GASTUAK

Kapitulu honetako gastu bateratuak 1,83 milioikoak izan dira; ekitaldiko guztizko gastuaren ehuneko 39, hain zuzen.

Honako hau izan da gastuaren aurreko ekitaldiarekiko bilakaera eta kontzeptuen arabeko xehetasunak:

Ondasun arruntak eta zerbitzuak	2015	2016	Aldea (%)
Errentamenduak eta kanonak	2.753	7.756	182
Konponketak, mantentze-lana eta kontserbazioa	500.524	286.969	-43
Materiala, hornidurak eta beste	1.284.657	1.500.499	17
Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainak	4.225	4.164	-1
Argitalpen-gastuak	47.390	0	-100
Udala, guztira	1.839.549	1.799.388	-2
Konponketak, mantentze-lana eta kontserbazioa	10.846	837	-92
Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuak	21.807	30.696	41
Musika eskola, guztira	32.653	31.533	-3
2. kapitulu bateratua, guztira	1.872.202	1.830.921	-2

Hurrengo bi kontratuak berrikusi dira, bai eta kapitulu honi egotzitako Udalaren gastuen lagin bat ere –bide-garbiketa, 0-3 urteko ikastetxearen kudeaketa, tokiko hedabideen gastuak eta gastu juridikoak–.

Izena	Kontratu-mota	Prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	Zenbat eskaintza	Adjudikazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	2016-12-31ra arte betetako zenbatekoa (BEZik gabe)
Ludoteka	Laguntza	Irekia, Europako mugatik behera /eskaintzarik onurgarriena	23.000	2	20.166	6.783
Aseguruak	Laguntza	Irekia, Europako mugatik behera /eskaintzarik onurgarriena	41.250	1	40.572	32.649

Azterketatik ondorioztatzen da ezen, oro har, aztertutako bi espedienteak araudi indardunean ezarritakoaren arabera izapidetu direla; halaber, aztertutako gastuak kasuko fakturretan justifikatuta daude, zuzen kontabilizatu dira eta, orokorrean, aplikatzekoa den araudia errespetatu da. Alabaina, honako hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Aztertu ditugun bi kontratuak ez zaizkio Kontratuen Erregistro Publikoari komunikatu.
- Tokiko hedabideen (Peralta Televisión) kudeaketa 2012ko apirilean esleitutako kontratu batean oinarritzen da; 2016ra arteko indarraldia du kontratu horrek. Kontu-hartzailetzaren eragozpen-ohar bat badago, 2016an ordaindutako gastuengatik; izan ere, kontratu horren indarralditik kanpo ordaindu dira. 5.411 euro egiten dute.
- Halaber, Udalaren kontu-hartzailetzaren honako gai hauei buruzko eragozpen-oharrak ere badaude:
 - a) Errepikatzen diren gastu batzuk: haien zenbatekoak direla-eta berariazko kontratazio-espedienteak izapidetu beharrekoak ziren. Hornidurei eta aholkularitza teknikoei dagozkie, funtsean.
 - b) Jada mugaeguneratuta dauden kontratuak; esate baterako instalazioen garbiketa, zeina ekainetik abendura ordaintzen baita kontratu indarduniki eduki gabe (8.691 euro dira); 2017an, kontratu hori berriz ere esleitu da.

Gure gomendioak:

- *Behar diren kontratazio-espedienteak izapidetzea errepikakorrak izategatik eta zenbatekoagatik araudiaren arabera hala jokatu behar den zerbitzuen kasuan.*
- *Hirugarren batekin egindako kontratuen indarraldia gehiago kontrolatzea eta dagokion lizitazio-prozeduraren hasiera behar adinako denboraz planifikatzea.*
- *Kontratu-euskarririk gabeko betebeharrak hartu beharreko kasuetan, izapidetzerako prozedura egokia ezartzea, aberaste bidegabearen teoriaren arabera, organo eskudunak onets dezan.*
- *Esleitutako kontratuak Kontratuen Erregistro Publikoari komunikatzea.*

IV.6. TRANSFERENTZIA ARRUNTENGATIKO GASTUAK

Udalaren transferentzia arruntengatiko gastua 458.991 eurokoa izan zen 2016an; hona hemen xehakatzeari:

Udalaren transferentzia arruntak	2015	2016	Aldea (%)
Entitatearen erakunde autonomoei	138.550	140.550	1
Foru Komunitateari	2.000	3.000	50
Toki entitateei	125.510	122.065	-3
Entitate pribatuei	58.000	89.959	55
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei	110.570	103.417	-6
4. kapitulua, guztira	434.630	458.991	6

Musika eskolak ez du gisa horretako gasturik.

Musika eskolarako ekarpenak jaso dira -140.550 euro 2016an- bai eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari egindakoak ere -120.065 euro-

Gastuaren ehuneko 38ko lagin bat aztertu dugu, enplegua sortzeko, kirol-instalazioetarako eta kirol-klubentzako ekarpenetarako diru-laguntzei dagokiena. Oro har, egindako lanetik ondorioztatzen dugu transferentzien onspena, justifikazioa, kontabilizatzea eta ordainketa zuzen egiten direla.

IV.7. INBERTSIOAK

2016ko ekitaldian aitortutako betebeharrak 207.442 eurokoak izan ziren; guztizko gastuaren ehuneko lau egiten du horrek. 2015ekin alderatuta, ia milioi bateko beherapena a hori; hau da, ehuneko 82koa.

Udalaren inbertsioen arloko gastua 205.185 eurokoa izan da; Musika Eskolan, berriz, 2.257 eurokoa da, eta musika-tresnak erosteko erabili da.

Hurrengo bi kontratuak berrikusi dira, bai kapitulu honi egotzitako Udalaren gastuaren lagin bat -igerilekua estaltzea¹ eta eraikinean igogailu bat jartzea, kapituluko gastuaren ehuneko 20- eta musika eskolaren gastu guztiak ere.

Izena	Kontratu-mota	Prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	Eskaintzak egin dituztenak	Esleipenaren zenbatekoa (BEZik gabe)	2016-12-31ra arte betetako zenbatekoa (BEZik gabe)
Azkoiaren bi padel pista estali eta ixtea	Obra	Negoziatua, Europar publikitateari egin gabe	146.318	1	144.855	0
Familia bakarreko bi etxebizitza eraisteko proiektua	Obra	Europar Batasunean publikitateari gabeko prozedura negoziatua	41.087	3	39.669	46.867

Azterketatik ondorioztatzen da ezen, oro har, bi espedienteak araudi indardunari jarraituz izapidetu direla, honako salbuespen honekin: etxebizitzak eraisteko obretan, kontu-hartzailetzaren eragozpen-ohar bat badago, haren aldaketa bat izapidetu ez izanari buruzkoa, proiektuan jasota ez zeuden obra-unitate berri batzuk tarteko, zeinek aurkeztutako ziurtagiriaren arabera 8.745 eu-

¹ Obra funtsean Udalaren bitarteko propioekin egin da.

roko balioa baitute (BEZik gabe); aldaketa horrek justifikatzen du funtsean betearazitako kopuruaren eta esleipeneko kopuruaren artean dagoen aldea.

Halaber, honako hauek aipatu behar ditugu:

- Aztertutako bi kontratuetatik bakarra ere ez zaio Kontratuen Erregistro Publikoari komunikatu.
- Padel pisten obrarako lau enpresa gonbidatu ziren, baina bakarrak aurkeztu zuen behar zen eskaintza, eta obraren esleipen-hartzaile suertatu zen; 2016an, proiektuaren erredakzioarengatik gastua baizik ez da betearazi, eta 4.900 eurokoa izan da (BEZik gabe).
- Bi etxebizitzak eraistek ekartzen duen gastua haien jabeei ordainaraziko zaie.

Aztertutako gainerako gastuei buruz, esan behar dugu dagozkien fakturekin eta ziurtagiriekin justifikatuta daudela, zuzen kontabilizatu direla eta, oro har, aplikatzekoa den araudia errespetatu dutela.

Gure gomendioak:

- *Kontratu-aldaketak izapidetzea araudian erregulatutako prozedurari jarraituz.*
- *Esleitutako kontratuak Kontratuen Erregistro Publikoari komunikatzea.*

IV.8. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2016ko ekitaldiko kapitulu bakoitzarengatik aitortutako eskubide bateratuak eta haien eta aurreko ekitaldikoaren arteko alderaketa ondoko taula honetan adierazten dira:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubide garbiak		Aldea, portzentajea 2016/2015
	2015	2016	
1. Zuzeneko zergak	1.528.880	1.654.036	8
2. Zeharkako zergak	112.863	204.645	81
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	591.766	557.504	-6
4. Transferentzia arruntak	2.149.354	2.166.813	1
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	738.663	755.840	2
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	5.121.526	5.338.838	4
6. Inbertsioen besterentzea	160.990	0	-100
7. Kapital-transferentziak	396.555	17.976	-95
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	557.545	17.976	-97
Diru-sarrerak, guztira	5.679.071	5.356.814	-6

2016ko ekitaldian aitortutako eskubide bateratuak 5,36 milioikoak izan dira; horietatik, 5,34 milioi diru-sarrera arruntei dagozkie eta 17.976, berriz, kapitaleko diru-sarrerei. Diru-sarreraren aurrekontuaren betetze-maila ehuneko 86koa izan da; nabarmentzekoak dira zeharkako zergak, ehuneko 171rekin, eta zuzeneko zergak, ehuneko 106rekin; azpimarratzekoa da, halaber, kapitaleko transferentzien betetze-maila txikia, ehuneko bikoa baizik izan ez baita.

2015arekin alderatuta, diru-sarrerak ehuneko sei beheratu dira; horren azalpena da, funtsean, kapitaleko diru-sarrerak ehuneko 97 jaitsi direla; diru-sarrera arruntak, ordea, ehuneko lau handitu dira.

Musika eskolaren 2016rako banakako diru-sarrerak hurrengo taulan islatutakoak dira:

Musika eskolaren diru-sarrerak	Zenbatekoa
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	87.622
Transferentzia arruntak	179.896
2016ko diru-sarrerak, guztira	267.518

a) Zergak

Ondorengo taulan udal zerga bakoitzak aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da:

Udal zergak	2015	2016	2016/2015 aldea (%)
Landa-lurraren gaineko kontribuzioa	84.778	84.902	-
Hiri-lurraren gaineko kontribuzioa	806.998	892.346	11
Ibilgailuak	338.387	341.941	1
Lurren balio-gehikuntza	44.863	74.262	66
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	253.853	260.584	3
EIOZa	112.863	204.646	81
Zergak, guztira	1.641.743	1.858.681	13

Likidatutako zergek ehuneko 13 egin dute gora; igoera handienak ikusten dira hiri-lurren kontribuzioarengatik eskubideetan, lurren balio-gehikuntzan eta EIOZean.

Udalak aplikatutako tasak Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legeak jasotzen duen tarte altuan kokatzen dira. Hona banakatutako xehetasunak:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Landa-lurraren gaineko kontribuzioa	0,8	0,10 - 0,50
Hiri-lurraren gaineko kontribuzioa	0,2892	
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,4	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza		
Gaurkotzearen koefizientea	2,05 - 2,46	2 eta 3,3 bitarte
Zerga-tasa	8,2	8 eta 20 bitarte
EIOZa	3,13	2,5 eta 5 bitarte

Azkeneko balorazio-ponentzia 2002an egin zen, zabal gaindituz hura berrikusteko araudian ezarrita dagoen bost urteko epea; gaur egun, hura gaurkotzeko lan egiten ari da. Horrenbestez, Udalak hiri-lurraren kontribuzioari eta landa-lurraren kontribuzioari aplikatzekoak zaizkien tasak bereizten jarraitzen du, ez baititu horiek egokitu araudian ezarritako tasa bakarraren arabera.

2015ean udalez gaindiko beste balorazio-ponentzia bat onetsi zen, parke eolikoa zela eta.

Zergen bidezko diru-sarreraren aurrekontuko partiden lagin baten gainean azterketa egin ondoren, egiaztatu dugu ezen, oro har, egoki izapidetu, justifikatu eta kontabilizatu direla.

Gure gomendioak:

- *Gaur egun egiten ari den balorazio-ponentziaren gaurkotzeari amaiera ematea.*
- *Behin balorazio-ponentziaren aipatutako gaurkotzea eginda, tasa bakarra onestea hiri-lurraren kontribuziorako eta landa-lurraren kontribuziorako, legeria indardunean ezarritakoari jarraituz.*

b) Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk

Tasak eta bestelako diru-sarrerak direla-eta aitortutako eskubideek 557.504 euro eman dituzte: 2016ko ekitaldian aitortutako diru-sarreraren ehuneko 10 dira. 2015arekin alderatuta, ehuneko sei egin dute behera.

Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	Aitortutako eskubideak	
	2015	2016
Tasak	146.393	251.916
Salneurri publikoak.	186.133	73.421
Bestelako diru-sarrerak	165.042	144.545
Udala, guztira	497.568	469.882
Salneurri publikoak.	93.322	86.153
Bestelako diru-sarrerak	876	1.469
Musika eskola, guztira	94.198	87.622
3. kapitulua, guztira	591.766	557.504

Hurrengo partiden lagin bat egiaztatu dugu. Kapituluko aitortutako eskubideen ehuneko 58 dira, eta funtsean lurzoruaren okupazioarengatik tasari, 0-3 urtekoen ikastetxeari eta bestelako diru-sarrerari dagozkie; gainera, musika eskolako matrikulen bidezko diru-sarrerak berrikusi dira.

Azterketaren ondorioa da haien izapidetzea, justifikazioa eta kontabilizazioa araudiaren arabekoak izan direla.

Hala eta guztiz ere, Udaleko kontu-hartzaitzak aipatzen duen bezala, diru-sarrera batzuk badaude –zenbateko ez oso handikoak– haiei babesa ematen dien ordenantza edo arau bat eduki gabe likidatzen ari direnak; esate baterako, zenbait kultura- edo kirol-jarduerari dagozkionak.

Gomendatzen dugu Udalak eta haren erakunde autonomoek likidatutako diru-sarrera guztiek dagokien ordenantzaren edo arauaren babesa izatea.

c) Transferentzien bidezko diru-sarrerak

Transferentzia arruntek eta kapitalekoek Udalak aurrekontu bateratuan 2016an aitortutako eskubide guztien ehuneko 41 egiten dute. Batera hartuta, ehuneko 14 jaitsi ziren 2015eko ekitaldian alderatuta.

Banaka eta Udalari begiratuta, betetzea eta bilakaera honako hauek izan dira:

Transferentziak	2015	2016	2016/2015 aldea (%)
Estatuaren tributuetako partaidetza	6.609	6.779	3
EINen diru-laguntza	92	91	-1
Nafarroako tributuetako partaidetza	1.519.966	1.548.846	2
Funtzionarioen montepioaren diru-laguntza	116.293	105.131	-10
0-3 urtekoen zentrorako diru-laguntza	55.186	64.433	17
Bake epaitegiatarako diru-laguntza	5.747	5.739	0
Kultur jardueretarako diru-laguntza	16.761	25.956	55
Hautetsien lansarietarako diru-laguntza	52.768	53.771	2
Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren diru-laguntza,	57.488	74.528	30

langabetuak kontratatzeko			
Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren diru-laguntza, gizarteratze-errentarako	79.389		
Gazte bermeko kontratuetarako diru-laguntza		35.940	
Turismoaren garapenerako hitzarmenaren ekarpena		7.834	
Bardeako Komunitateko urteko kanona	195.000	195.000	-
Enpresa pribatuen kalte-ordaina	3.618	3.119	-14
Enpresa pribatuen ekarpena	2.001	300	-85
Transferentzia arruntak guztira	2.110.918	2.127.467	1
Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza, basolanetarako		7.102	
Azpiegituretako eta bide sareko kalteetarako diru-laguntza		10.874	
Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza, Cascajo aldeko ureztaketarako	192.029		
Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza, Alta Tejedores kaleko hormarako	41.745		
512 lurzatian eraispena egiteko diru-laguntza	31.732		
Laborala deitutakoa zaharberritzeko diru-laguntza	131.049		
Kapital-transferentziak guztira	396.555	17.976	-95
Udalaren 4. eta 7. kapituluak, guztira	2.507.473	2.145.443	-14

Musika eskolaren betetzea honako hau izan da, xehakaturik:

Transferentzien bidezko diru-sarrerak	Aitortutako eskubideak		Aldea (%)
	2015	2016	2016/2015
Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza	38.427	39.346	2
Udalaren ekarpena	138.550	140.550	1
Musika eskola, guztira	176.977	179.896	2

Nafarroako Gobernutik jasotako diru-laguntzak haren kontabilitate-informazioarekin alderatu dira, eta ez da aipatzeko moduko alderik aurkitu.

d) Ondarearen bidezko diru-sarrerak eta herri-lurretako aprobetxamenduak

Kapituluan aitortutako diru-sarrerak 755.840 euro egin dute, ehuneko 102ko betetze-portzentajearekin. Honako hauek dira diru-sarreren kontzeptuaren araberrako xehetasunak 2016an eta 2015ean, bai eta urte horietako aldea ere:

Ondare bidezko diru-sarrerak	2015	2016	Aldea (%)
Gordailuen interesak	5.028	6.246	20
Ondasun higiezinetak errentak	9.879	7.139	-38
Aprobetxamenduak	723.756	742.455	3
5. kapitulua, guztira	738.663	755.840	2

Berriaz berrikusi da herri-lurren aprobetxamenduen partida, eta ez da gorabeherarik aurkitu.

IV.9. ITXITAKO EKITALDIETAKO AURREKONTUAK

IV.9.1. Itxitako aurrekontuetako gastuak

2016ko abenduaren 31n, ordaintzeke dauden itxitako ekitaldietako gastuen saldoa 41.722 eurokoa da. Honako hau da xehakatzeara:

Itxitako aurrekontuetako gastuak, ordaintzeke daudenak	2016/12/31
Udala	40.485
Musika eskola	1.237
Guztira	41.722

Udalaren kasuan, bost idazpen berrikusi dira: lehendik ordaintzeke dagoen saldoaren ehuneko 74 dira. Honako hau nabarmendu beharra dago:

- 8.848 euroko faktura bat, zeinari baja emanen baitzaio prozedura judiziala amaitu ondoren.
- Gainerako fakturek 20.963 euro egiten dute, eta 2008tik 2011ra betearazitako gastuei dagozkie. Gaur egun, ez dakigu ordainketa-betebeharren bati erantzuten dioten, eta hirugarrenen erreklamaziorik ere ez dago.

Gomendatzen dugu itxitako ekitaldietako gastuen saldoak berrikustea, egiazko ordainketa-betebeharrei ez dagozkienak erregularizatu eta haiei baja emateko.

IV.9.2. Itxitako aurrekontuetako diru-sarrerak

2016ko abenduaren 31n, kobratzeke dauden itxitako ekitaldietako saldoa 597.057 eurokoa da. Honako hau da xehakatzeara:

Itxitako aurrekontuetako diru-sarrerak, kobratzeke daudenak	2016/12/31
Udala	594.327
Musika eskola	2.730
Guztira	597.057

Udalaren kasuan, aurreko saldoa honela xehakatzen da:

Urtea	Hasierako saldoa 2016-01-01ean	2016ko kobran- tzak	Kaudimen gabe- ziak eta beste baja batzuk	Amaierako saldoa 2016- 12-31n	Amaierako saldoa (%)	Hasierako saldoaren gainean kobratutakoa (%)
2015	277.819	186.368	7.902	83.549	14	67
2014	59.969	9.228	0	50.740	9	15
2013	153.074	25.977	590	126.507	21	17
2012	50.072	4.515	75	45.482	8	9
2011	44.444	2.900	0	41.544	7	6
2010	44.916	1.098	136	43.682	7	2
2009a eta aurrekoak	209.454	4.075	2.557	202.823	34	2
Guztira	839.748	234.161	11.260	594.327	100	28

1994tik kobratzeke dauden kopuru batzuk badaudela ikusi da; haien izaerari erreparatuta, ehuneko 31 zirkulazio-zergari dagozkie; ehuneko 16 trafikoko isun eta zehapenei; ehuneko 13 gainbalioaren gaineko zergari; ehuneko 12 JEZari eta ehuneko 11 hiri-lurren kontribuzioari.

Udalak hirugarren batekin kontratatua du epe exekutiboan dauden ordainagiri kobrantzarako laguntza-zerbitzua.

Musika eskolak kobratze dituen diru-sarrerak 2002tik kobratzeke dauden matrikulei dagozkie.

Gure gomendioak:

- *Itxitako ekitaldietako diru-sarreraren saldoak berrikustea, gaur egun behin betiko kobraezintzat jo daitezkeen zenbatekoak erregularizatzeko.*
- *Itxitako aurrekontuetako diru-sarreraren kontzeptu desberdinen kobrantza errazten duten metodo eta mekanismoak indartzea.*

Ignacio Cabeza del Salvador auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2018ko martxoaren 23an

Lehendakaria,
Asunción Olaechea Estanga